Finantza Zuzendaritzak behar den adina administrazio-babesa emango du Ebaluaziorako Sailarteko Batzordearen jardunerako.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ebaluaziorako Sailarteko Batzordearen prozedura eta funtzionamenduari dagokienez dekretu honetan aurrikusi barik geratu den kasuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

*Bigarrena.–* Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuari ahalmena ematen zaie dekretu hau garatzeko eta burutzeko beharrezko diren xedapenak eman ditzaten.

*Hirugarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko uztailaren 15ean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakariordea eta Ogasun eta Herri
Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua,
ROSA DÍEZ GONZÁLEZ.

La Dirección de Finanzas prestará el apoyo administrativo necesario para el funcionamiento de la Comisión Interdepartamental de Evaluación.

DISPOSICIONES FINALES.

*Primera.–* En lo no previsto en este Decreto en materia de procedimiento y funcionamiento de la Comisión Interdepartamental de Evaluación se aplicará lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

*Segunda.–* Se faculta a los Consejeros de Hacienda y Administración Pública, de Industria, Agricultura y Pesca, de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y a la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo, a dictar, en el ámbito de sus competencias, las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Tercera.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de julio de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Vicepresidente y Consejero de
Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo,
ROSA DÍEZ GONZÁLEZ.

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-3965

AGINDUA, 1997ko uztailaren 8koa; Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezien Euskadiko Zerrendan espezie, azpiespezie eta ornodun populazio berrriak sartzeko dena.

Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezien Euskadiko Zerrenda arautzen duen uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuan ezarritako prozedurarekin bat eginez, eta aurretiaz Natura Babesteko Aholku Kontseilua-Naturzaintzak egindako aldeko txostena delarik, aipatu zerrendan espezie, azpiespezie eta ornodun populazio berrriak sartzea onartu da.

Ondorioz, hauxe,

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### N°-3965

ORDEN de 8 de julio de 1997, por la que se incluyen en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora, Silvestre y Marina, nuevas especies, subespecies y poblaciones de vertebrados.

De conformidad con el procedimiento establecido en el Decreto 167/1996, de 9 de julio, por el que se regula el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora, Silvestre y Marina, previo informe favorable del Consejo Asesor de la Conservación de la Naturaleza - Naturzaintza, se aprueba incluir en dicho Catálogo nuevas especies, Subespecies y poblaciones de vertebrados.

En su virtud,

XEDATU DUT:

*Lehen atala.*– Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezien Euskadiko Zerrendan agindu honen eranskinean zehazten diren espezie, azpiespezie eta ornodun populazio berrriak sartzea.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1997ko uztailaren 8a.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

DISPONGO:

*Artículo único.*– Se incluyen en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora, Silvestre y Marina las especies, subespecies y poblaciones de vertebrados que se relacionan en el anexo a la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 1997.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## ERANSKINA / *ANEXO*

1.– «Galtzeko arriskuan daudenen» kategorian sailkaturiko espezie, azpiespezie eta populazioak.
*1.– Especies, subespecies y poblaciones catalogadas En Peligro de Extinción:*

Hegaztiak
*Aves*

Gypaetus barbatus, Ugatza, Quebrantahuesos.
Hieraaetus fasciatus, Bonelli arranoa, Águila perdicera.

2.– «Kalteberen» kategorian sailkaturiko espezie, azpiespezie eta populazioak.
*2.– Especies, subespecies y poblaciones catalogadas como Vulnerables*

Arrainak
*Peces*

Barbus haasi, Izatzgorri barboa / Barbo de cola roja.

Narrastiak
*Reptiles*

Mauremys leprosa, Apoarmatu korrontazalea, Galápago leproso en Álava.

Hegaztiak
*Aves*

Platalea leucorodia, Mokozabala zuria, Espátula común.
Tetrax tetrax, Basoilo txikia, Sisón común.

Ugaztunak
*Mamíferos*

Myotis bechsteinii, Bechstein saguzarra, Murciélago de Bechstein.
Myotis blythii, Arratoi-belarri txikia, Murciélago ratonero mediano.

3.– «Bakanen» kategorian sailkaturiko espezie, azpiespezie eta populazioak
*3.– Especies, subespecies y poblaciones catalogadas como Raras:*

Hegaztiak
*Aves*

Ixobrychus minutus, Amiltxori txikia, Avetorillo común.
Nycticorax nycticorax, Amiltxori arrunta, Martinete común.
Ardea purpurea, Lertxun gorria, Garza imperial.
Ciconia nigra, Amiamoko beltza, Cigüeña negra.
Circus aeruginosus, Zingira-mirotza, Aguilucho lagunero occidental.
Pandion haliaetus, Arrano arrantzalea, Águila pescadora.
Falco columbarius, Belatz txikia, Esmerejón.
Charadrius alexandrinus, Txirritxo hankabeltza, Chorlitejo patinegro.
Calidris alpina, Txirri arrunta, Correlimos común.
Galochelidon nilotica, Txenada mokobeltza, Pagaza piconegra.
Chlidonias niger, Itsas enara beltza, Fumarel común.
Asio flammeus, Zingira-hontza, Lechuza campestre.
Dryocopus martius, Okil beltza, Pito negro.
Oenanthe leucura, Buztanzuri beltza, Collalba negra.
Phylloscopus trochilus, Txio horia, Mosquitero musical.
Certhia familiaris, Basoetako gerri-txoria, Agateador norteño.

4.– «Interes berezikoen» kategorian sailkaturiko espezie, azpiespezie eta populazioak
*4.– Especies, subespecies y poblaciones catalogadas como De Interés Especial:*

Hegaztiak
*Aves*

Podiceps nigricollis, Txilinporta lepabeltza, Zampullín cuellinegro.
Botaurus stellaris, Txori zezen arrunta, Avetoro común.
Ardeola ralloides, Lertxuntxo karramarrozalea, Garcilla cangrejera.
Crex crex, Giloia, Guión de codornices.
Grus grus, Kurrilo arrunta, Grulla común.
Himantopus himantopus, Zankaluzea, Cigüeñuela común.
Turdus torquatus, Zozo paparzuria, Mirlo capiblanco.
Acrocephalus paludicola, Ur-benarriza, Carricerín cejudo.
Sylvia conspicillata, Ezkal-txinboa, Curruca tomillera.

Ugaztunak
*Mamíferos*

Barbastella barbastellus, Baso-saguzarra, Murciélago de bosque.
Pipistrellus nathusii, Nathusius pipistreloa, Murciélago de Nathusius.
Nyctalus noctula, Gau-saguzarra, Nóctulo común.
Tadarida teniotis, Saguzar buztanluzea, Murciélago rabudo.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**Zk-3966**

178/1997 DEKRETUA, uztailaren 22koa, Donostia-San Sebastiánen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen menpeko Erizaintza Unibertsitate-Eskola eratzen duena.

Donostia-San Sebastiánen Erizaintza Diplomaturako unibertsitate-titulua lortzeko irakaskuntzak 1978an hasi ziren ematen, apirilaren 11ko Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzaren Aginduz (1978ko maiatzaren 10eko BOE, 111. zk.), «Arantzazuko Amaren» Osasun-Egoitzako Osasun-Laguntzaile Teknikoen Eskola aldatzea onartu zenean. Eskola hori 1965ean eratu zen eta Gizarte Aurrikuspeneko Institutu Nazionalaren menpe egonik, Bilboko Unibertsitateko (egun Universidad del país Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea) Erizaintza Unibertsitate-Eskolara adskribatua zegoen.

Geroztik, Eskola hori Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Erizaintza Unibertsitate-Eskolako Irakaskuntza-Unitate gisa funtzionatzen hasi zen, egun ere hala dihardeula. Irakaskuntza-Unitate horren Erizaintzan Diplomatu izateko Ikasketa-Plana Unibertsitate Kontseiluko Ikasketa-Batzordeak homologatu zuen 1995eko ekainaren 15ean, eta 1995eko uztailaren 26ko UPV / EHUren Erabaki bidez argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 1995eko abuztuaren 28an, eta Estatuko Buletin Ofizialean, 1995eko abuztuaren 30ean, hurrenez hurren.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**N°-3966**

DECRETO 178/1997, de 22 de julio, por el que se crea una Escuela Universitaria de Enfermería en Donostia-San Sebastián dependiente de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

La impartición de las enseñanzas conducentes al título universitario de Diplomado en Enfermería en Donostia San Sebastián se inició en el año 1978 cuando por Orden del Ministerio de Educación y Ciencia de 11 de abril (BOE núm. 111, de 10 de mayo de 1978), se aprobó la conversión de la Escuela de Ayudantes Técnicos Sanitarios de la Residencia Sanitaria «Nuestra Señora de Aránzazu», creada oficialmente en 1965 y dependiente del Instituto Nacional de Previsión, en Escuela Universitaria de Enfermería adscrita a la Universidad de Bilbao, hoy Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Posteriormente esta Escuela comenzó a funcionar como una Unidad Docente de la Escuela Universitaria de Enfermería de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, situación que se mantiene en la actualidad, cuyo Plan de Estudios de Diplomado en Enfermería fue homologado por la Comisión Académica del Consejo de Universidades de 15 de junio de 1995 y publicado mediante Resolución de la UPV / EHU de 26 de julio de 1995 en el Boletín Oficial del País Vasco de 28 de agosto de 1995 y en el Boletín Oficial del Estado de 30 de agosto de 1995.